

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 140/2018 FORU DEKRETUA, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez zuzentzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko irailaren 4ko 118/2018 Foru Dekretuan ikusitako akatsak. Azken foru dekretu horren bidez, aldatu egin zen 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onetsi zuena. Araudi horrek Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen du.

Akatsak ikusi direnez Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretua (dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko Araudi Orokorra onetsi zen, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren testu bategina garatzen duena) aldatzen duen 2018ko irailaren 4ko 118/2018 Foru Dekretuan, zuzendu egin dira, honela:

Bat

Bederatzigarren atalean, honako hau dioen lekuan:

«Bederatzi.—Berridatzi egiten dira 65. artikuluko 2) atala, eta honela geratuko da edukia:

2. Diruzaintzako geldikin garbia eragiketa honen emaitza da: diruzaintzako geldikin garbia ken doikuntza finantzarioa; doikuntza hau araudi honetako 63. artikuluan definitzen da. Kontuan hartuko dira, halaber, kasu bakoitzeko inguruabarrak direla-eta egin beharreko beste doikuntza guztiak.»

— Honako hau esan behar du:

«Bederatzi.—Berridatzi egiten da 65. artikuluko 2) eta 3) atalak, eta honela geratuko da edukia:

2. Diruzaintzako geldikin garbia eragiketa honen emaitza da: diruzaintzako geldikin garbia ken doikuntza finantzarioa; doikuntza hau araudi honetako 63. artikuluan definitzen da. Kontuan hartuko dira, halaber, kasu bakoitzeko inguruabarrak direla-eta egin beharreko beste doikuntza guztiak.

3. Diruzaintzako beharrezko plangintza erraztearren, diruzaintzako geldikin garbi likidoa kalkulatu da, kontuan hartuta kobratzeko geratzen diren eskubideen bilketak eta ordaintzeko dauden obligazioen ordainketak duten periodizazioa, hau da, zenbatez geldikinetik zer zati bihurtuko den likido hurren-hurrengo ekitaldian.»

Bi

Hamazazpigarren atalean, honako hau dioen lekuan:

«1. Abalen onuradunak foru-sektore publikoko erakundeak, kapital sozialaren gehiena publikoa duten merkataritza-sozietateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-korporazioak direnean bakarrik erabaki daiteke Kode Zibilaren 1830. artikuluan ezarritako eskusio-onurari uko egitea.»

— Honako hau esan behar du:

«2. Abalen onuradunak foru-sektore publikoko erakundeak, kapital sozialaren gehiena publikoa duten merkataritza-sozietateak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-korporazioak direnean bakarrik erabaki daiteke Kode Zibilaren 1830. artikuluan ezarritako eskusio-onurari uko egitea.»



Hiru

Hemeretzigarren atalean, honako hau dioen lekuan:

«Hemeretzi.—Berridatzi egiten da 114. artikuluko 4) atala, eta honela geratuko da idatzita:»

— Honako hau esan behar du:

«Hemeretzi.—Berridatzi egiten da 114. artikuluko 7) atala, eta honela geratuko da idatzita:»

Bilbon, 2018ko urriaren 30ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ